

Logika

1. Patrick Blackburn & Johan Bos, *Representation and Inference for Natural Language. A First Course in Computational Semantics*. Stanford: CSLI Publications, 2005, xxv + 350 or.

Semantika konputazionalari egindako sarrera honek hizkuntza naturalaren zati batzuen errepresentazio semantikorako oinarritzko teknikak aurkezten ditu. Honetaz gain, errepresentazio semantiko hauen bitartez egin ahal diren inferentziak eta konputazioak ere lantzen dira. Sei kapitulu eta lau gehigarritan banatzen da liburua. Lehen ordenako logikari eta Lambda kalkuluari egiten zaie sarrera lehenengo bi kapituluetan. Hirugarrenak errepresentazioaren gaia lantzen du, eragin ambiguitasunei garrantzi berezia emanik. Laugarren eta bosgarren kapituluetan inferentzia aurkezten da, proposizionala eta lehen ordenakoa. Azkenik, guztia elkarrekin jarriz, liburuan garatzen den software programa garatzen da. Gehigarrietan interneten aurki daitezkeen tresna eta laguntzak zehazten dira.

Semantika konputazionala gai berria dugu, eta berria izanik beharrezkoa zaigu zertan den mugatzea edo egileek

zer ulertzen duten honetaz argitzea. «Semantika» hitzak hemen «Semantika formal» esan nahi du, hau da, ereduaren teoriaren terminotan hizkuntza naturalaren adierazpenen interpretazioak eskaintzea. Semantika konputazionalari buruz hitz egitea aldiz, konputagailuen erabileraz hitz egitea da, errepresentazio semantikoa eraikitzeke eta hauek erabiltzeko (inferentzia) tresnei eta teknikei buruz hitz egitea. Bi dira hortaz liburu honetako gai nagusiak edota erantzun nahi diren galdera nagusiak. Alde batetik, hizkuntza naturaleko adierazpenak eta dagozkien errepresentazio semantikoen arteko asoziazio prozesuen automatizazioaren nondik norakoak eta, bestetik, hizkuntza naturaleko adierazpenen errepresentazio logikoen erabilera inferentziaren prozesuan.

Xabier Arrazola

Zientzia Kognitiboa

2. Jacqueline P. Leighton & Robert J. Sternberg, *The nature of reasoning*. Cambridge: Cambridge University Press, 2004, x + 470 or.

Arrazoibidearen sailean lehen mailakoak diren autoreak bildu ditzuzte hemen liburuaren argitaratzaileek. Aipa ditzadan horietako batzuk, beharbada ezagunenak, dudarik gabe ezagunenak, arrazoibidearen psikologiaren iker-

tzaileen artean: Jonathan St. B. T. Evans, Kenneth J. Gilhooly, Vittorio Girotto, Philip N. Johnson-Laird, Raymond S. Nickerson, D. P. O'Brien eta Robert J. Sternberg. Azken hau liburuaren argitaratzaileetako bat ere bada. Liburuak arra-

zoibidearen izaera eta ezaugarriak aztertzen ditu, saihestu guztietatik aztertu ere. Arrazoibidearen garrantzia ere nabarmentzen du, zerkusi handia baitu horrek beste zenbait buru jardunetan ere, problema-ebazpenean eta erabaki-hartzean esaterako. Liburua hiru partetan banatua dator. Lehen partean, bost kapitulutan, oinarriko ideia batzuk aurkezten dira arrazoibideari buruz: gogoan gertatzen den fenomeno da, hor garuneko atal jakin batzuek parte hartzen dutelarik; arrazoitze prozesuek laneko oroimeneko informazioa erabiltzen dute ondorioak ateratzeko; informazio horretan maiz, egoeraren edo egitekoaren aldagaiekin batera, norberaren alde aurreko usteak nahasten dira; norberaren usteen eragina dator egitekoari nork bere interpretazioa ezartzetik. Bigarren partean, arrazoibidearen mekanismoa edo funtzionamendua aurkezten da: nola doan moldatuz eta itzuratzuz arrazoibidea estrategien (hau da, ezagutza erabiltzeko moduen) eta ezagutza formalizatu edo irudikatzen moduen bidez; ea arrazoitze prozesutik ateratzen diren ondorioak zein ikuspuntutatik diren ho-

beki deskribatzen, buruko ereduen teoriarenetik, buruko logikaren teoriarenetik, ala besterik gabe heuristikoenetik. Azkenik, hirugarren parte arrazoibideari buruzko galdera hauei erantzuten saiatzen da: nola ebalua dezakegun, nola garratzen den, zein izan den horren bilakaera eboluzioan zehar, zein alde dauden gizabanakoen artean eta nola irakats daitekeen arrazoitzen. Hori guztia eskaintzen du liburua. Argitaratzailetako batek dioenez, egiten edo pentsatzen dugun ia guztian du zerkusia arrazoibideak. Ikasten ari garenean eta, berdin, kritikatzeko, analizatzeko, juzgatzeko, inferentziak egiten, ebaluatzen, aurkikuntzak egiten, asmatzen edo sortzen ari garenean, ondorioak ateratzen ditugu dugun informazioetik eta geure usteetatik. Gorabehera handikoa kontua da, hortaz, arrazoidearena. Sternbergekek dioenez, arrazoibideari dagozkion gauza franko modu nahiko fidagarrian ezagutzen ditugu gaur egun. Horien berri jakin nahi duenari liburu honek ez dio huts egingo.

Pello Huizi

3. Raymond S. Nickerson, *Cognition and Chance*. Mahwah, N.J.: Lawrence Erlbaum Associates, 2004, xi + 520 or.

Liburuaren izenburuan uztarturik ageri diren bi hitz horiek, kognizioak eta zoriak, baliteke bati baino gehiagori iruditzea bikote bitxia egiten dutela. Era berean, baliteke zenbait irakurleri ezinegona sortzea irakurtzeak (ikus 1. kapitulua) probabilitatearen izaerari buruz ez dagoela adostasunik. Eta ezinegon hori areagotu egin daiteke irakurtzean, hurrengo kapituluan, ausazkotasan kontzeptua harrapagaitza dela eta adituak ez datozela bat horren esanahi zehatzari dagokionez, ezta puntu honi dagokionez

ere: nola neurtu eta erabaki zerbait ausazkoa den ala ez. Hala ere, garrantzi handikoa da zerbait ausaz gertatu den ala ez esaterik izatea; izan ere, litekeena da ausazkoak ez diruditen gertakarien arteko loturek kausa-ondorioen arteko loturak adieraztea horien artean, edo ez izatea batera gertatze edo kointzidentzia hutsak besterik. Hirugarren kapituluan, itxuraz batera gertatzeak zirenen adibideak aipatzen dira, horietatik batzuek aurkikunde zientifiko garrantzitsuak ekarri baitituzte eta beste batzuek eran-

tzun ezinezko galderak. Autoreak honela laburtzen du atal hau: probabilitate teoria ez dago oinarri sendo bakar baten gainean finkatua, baina probabilitatearen erabilera hain hedatuak erakusten du matematikaren baliagarritasunak aurrea hartzen diola horren justifikazio teorikoari. Hurrengo lau kapituluak teoria estatistikoa dei daitekeenaz ari dira. Estatistikaren historia labur bat egiten da, psikologian izan duen eragina ere kontuan hartuz; Bayesen teoremaz eta horren aplikazioez hitz egiten da, eta zenbait problema aurkezten dira probabilitateez baliatuz ebatzi ahal direnak, baita probabilitateek sor ditzaketen paradoxa eta dilema batzuk ere. Gelditzen diren kapituluetan, arrazoibide probabilistari buruzko ikerketa psikologikoen emaitzen berri ematen da. Batez besteko

eta maiztasunen estimazioak egiten jendea nahiko ona dela ikusi izan da; hala ere, ikerketa gehienek lerrabide (*bias*) sistematikoak eragiten bide dituzten faktoreetan jarri dute arreta. Lerrabide edo *bias* direlako horietako batzuk honako hauek dira: laginaren neurria edo tamaina aintzat ez hartzea, gertakariaren imajinagarritasuna, edo gehiegizko optimismoa etorkizuna auresaterakoan. Hauek dira liburuan jorratzen diren gaiak. Kapitulu asko zein bere aldetik argitara zitezkeen berrikuste lanak dira eta eskaintzen duten teoria, teorialari eta ikerketen ikuspegia aski zabala da. Horregatik, liburu honetan kontsultako liburu on bat aurkituko du irakurleak dudarik gabe.

Pello Huizi

Hizkuntza, Informazioa eta Komunikazioa

4. Jonathan Ginzburg & Ivan Sag, *Interrogative Investigations. The Form, Meaning, and Use of English Interrogatives*. Stanford: CSLI Publications, 2000, xii+449 or.

Liburu mardula da Ginzburg eta Sagek idatzi dutena. Mardula, zehatza, serioa, konplexua, estudiatzen ordu asko eta asko emateko modukoa. Gaiak eskatzen du, dudarik ez: galderen forma, esanahia eta erabilera. Edo zehatzago, galdera-perpausen sintaxi, semantika eta pragmatika. Galdera-perpaus guztiak ez baitira galderak egiteko erabiltzen, menpeko perpaus direnean, esate baterako. Gaiari heltzeko abiapuntu teoriko nagusia esanahia da. Eta esanahiaren teoria guztien artean bat: situazioen semantika. Teoria sintaktikoak, beraz, esanahiari bere tokia aitortzen diona izan behar: HPSG (*Head-driven Phrase Structure Grammar*), gramatika sortzailea baina ez transformazionala, Ivan Sagek berak, beste ba-

tzuekin batera, sortu zuena. HPSG eta situazioen semantikako sarrera zabalak daude ezagutzen ez dituztenentzat. Baina interesgarriena da galdera-perpaus mota guztiak aztertzen dituztela: polaritate (bai/ez) galderak, hautazkoak, *wh*-partikuladunak, partikularen 'mugimendua' daukatenak nahiz ez daukatenak, errepikapen-galderak, zehar-galderak... hiltunen erabiltzen dituzten guztiak, norberaren teorian kabida zaila daukalako-edo erabilia bai baina egiazki ez-gramatikaltzat jotzeko tentazioari amore eman gabe. Hizkuntzalariak ez direnentzat liburua zaila izango da HPSG eta darabilen tipoen egitura formalismoa zaila egingo zaien neurrian. Hizkuntzalariek berriz situazioen semantikaren oinarri

ontologiko-epistemologikoekin izan dezakete eragozpenen bat. Baina batzuek zuten besteek galderen sintaxi, semantika eta pragmatika asko —pragmatika besteak baino dezente gutxiago, egia esan— ikasteko aukera izango dute, sintaxila-

rien artean horren hedatua ez dagoen hizkuntzen arteko erkatze enpiriko zabal eta esanahia serio hartzen dituzten bigileon eskutik.

Kepa Korta

5. Steven Davis & Brendan S. Gillon (argk.), *Semantics. A reader*. New York: Oxford University Press, 2004, xiv+921 or.

Liburu mardul honetan autore askok semantikako arazo askori buruz esandakoak biltzen dira. Autoreen ugartasuna aberasgarria da erabat, bereziki semantikaren ikuspegi desberdinak islatzea lortzen dutelako. Badaude semantika kognitibotik idazten dutenak, semantika formaletik, generatibistatik, eta abar. Liburuak bost atal ditu. Lehenengo atalean editoreek gaiari sarrera egiten diote, ondoren datozen artikulua irakurtzeko eta ulertzeko oso baliagarri gertatzen dena. Bigarren atal bi kapitulu bakarrik ditu; bi autorek semantikaren oinarriko zenbait kontzeptu argitzen dituzte, testu banatan. Beste hiru atalak gaia banatuta datoz: lehenengoak 'hur-bilketak' izena du, bigarrenak 'gaiak', eta

azkenekoak 'testuinguruarekiko mende-kotasuna'. Hiru atal horietan banatuta 30 testu dauzkagu. Izen eta izenburu ezagun asko ageri dira horien artean; batzuk aipatzekotan: Davidsonen 'Truth and Meaning', Kampen 'A Theory of Truth and Semantic Representation', Barwise eta Perryren 'Situations and Attitudes', edo Kaplanen 'Demonstratives'. Izen handien artikulua handiek duten baliogaitasun gain, liburu honen alderik interesgarriena izen askok sinatutako ikuspuntu asko ekartzea da. Eta horrelako bilduma mardulak eskatzen zuen aberaste lana: bibliografia oso zabala, eta ezinbestekoak ziren aurkibideak.

Joana Garmendia

6. Félix Martí, Paul Ortega, Itziar Idiazabal, Andoni Barreña, Patxi Juaristi, Carme Junyent, Belen Uranga & Estibaliz Amorrortu, *Hizkuntzen mundua: munduko hizkuntzei buruzko txostena*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, 2005, 455 or.

Munduko egoera soziolinguistikoa- ren berri ematen du lan honek. Hiru asmo dituztela diote egileek hitzaurrean. 1. Deskribatzaile izatea: hizkuntz aniztasuna azaldu, eta horren zati handi bat galtzeko arriskuan dela ohartaraztea. Hala ere, garbi uzten dute ez dela hizkuntz atlas bat, ez du erakutsi nahi munduko hizkuntzen zerrenda ofizialik.

2. Iritziak jakitea: hizkuntzen erabilerari eta eboluzioari buruzko iritziak eman dituzte hainbat pertsona, talde eta erakunde. 3. Etorkizunerako jarraibide batzuk ezartzea. Hizkuntz aniztasuna babestea guztion erantzukizuna dela diote, eta hizkuntz ondarea babesteko jarrerak bul-tzatzen lagundu nahi du lan honek. Aditu askok lan egin behar izan du asmo

horiek betetzeko, eta horien guztien ekarpenak bildu dituzte. Gai asko jorrazten dituzte liburuaren 12 ataletan, eta hizkuntza askoren berri eman, kolaboratzaile sare zabala lagun. Gai bat lantzen du kapitulu bakoitzak; eta, horrez gain, adituen artikulu batzuk, horiek hainbat hizkuntza eta gairen inguruan egindako ekarpen laburrak eta zenbait eremutako mapak tartekatzen dituzte. Hasieran, hitzaurrea eta sarrera ipini dituzte, lanaren nondik norakoak azaltzeko. Eta, bukaran, lau eranskin; erabilitako galdetegia, kolaborazioen aurkibidea, informatzaileen zerrenda eta hizkuntzen, familien eta aldaeren aurkibidea jasoz. Hona hemen kapitulu bakoitzaren edukia labur-labur. Lehen atalean, «Hizkuntz komunitateak» deituan, terminoak argitzen saiatu dira. Bigarrenak, «Hizkuntz ondarea», munduko hizkuntz aniztasunaren berri ematen du; Moreno Cabrera aditua lagun. Hirugarrenean, «Hizkuntzen ofizialtasuna», hizkuntzen estatusa landu dute, nola dauden hizkuntzak lege eta ofizialtasun aldetik; Annamalai irakaslearen ekarpenarekin. Laugarren kapituluak administrazioko hizkuntz erabilera aztertzen du. Hurrengo lau ataletan, hiz-

kuntzak honako eremu hauetan duen erabilera aztertzen dute, hurrenez hurren: idazketan, hezkuntzan, hedabideetan eta erlijioan. Bederatzigarrenean, hizkuntzaren belaunaldiz belaunaldiko transmisioa eta erabilera dute aztergai, eta hor ikusten diren joera linguistikoak dakartzate. Hamargarren atalean, hizkuntzen gaineko jarrerak dituzte hizpide. Hamaikagarrenean, informatzaileek euren hizkuntzei ikusten dizkieten arrisku eta mehatxuak ekarri dituzte. Azkeneko atalak, berriz, orain arteko egoera aztertu ondoren, hizkuntzen etorkizuna nola aurreikusten duten erakusten du. Liburua bi eratan irakurtzeko aukera ematen du duen egiturak: ohiko irakurketa eginez, liburua hasi eta bukatu; nahiz atalen irakurketa monografikoa eginez, horien izaera monografikoa kontuan hartuta. Datu eta egoera askoren berri ematen duen lana da, inondik ere. Eta gaur egun bizirik dauden hizkuntzen egoera eta etorkizuna hautemateko lan interesgarria. Baita egoera soziolinguistikoarekin lotuta dagoen hainbat gai eza-gutzeko ere.

Larraitx Zubeldia

7. John Field, *Psycholinguistics: The Key Concepts*. Londres: Routledge, 2004, xx + 366 or.

Psikolinguistikako gai, termino eta teoria nagusien A-Z ikuspegi orokorra eskaintzen du, ikuspegi labur-zehatza eta, aldi berean, osoa. Kontsultako liburua da, psikolinguistikako kontzeptu nagusiak azaltzen dituena hizkuntzalaritza eta psikologia ikasleentzat. Antolamendua eta hizkera argiak dituen eta ihes egiten duenez termino teknikoetatik, arloan interesa duten irakurle ez espezialistentzat ere egokia da liburua. Sarrerez

kanpo, liburuak entziklopedia formatua du; 358 sarrera dauzka, oso lagungarri gertatzen diren erreferentzia gurutzatu eta guzti. Sarrera bakoitzak honako osagai hauek ditu: kontzeptuaren definizio labur bat, azalpen zehatzago bat eta eztabaidatuak diren gai eta arazoak. «Eye movements» (begi-mugimenduak) direlakoei buruzko sarreran, adibidez, kontzeptua definitzen da esanez «irakurtzean begiak orrialdean barrena mugitzen

diren modua» dela. Ondoren, kontzeptu horrekin lotura duten hainbat terminoren azalpena egiten da, hala nola: *sakada* edo astinaldiak, begien finkapena, sakaden eta finkapenen iraupena, sakada ba-koitzak zenbat karaktere hartzen dituen. Begi-mugimendu eta begi-finkapenek irakurtzeko trebetasunarekin duten loturaz hitz egiten da gero, baita testu mota batetik bestera fenomeno horietan nabari daitezkeen aldeez ere. Sarreraren erreferentzia gurutzatu hau ematen da: «Reading: decoding» (irakurtzea: deskodetzea). Testuan letra lodia erabiltzen da liburuko beste sarrera batzuetara bidaltzeko, «Wrap up effects» (amaiera emate efektuak) sarrerara esaterako aipa-

tu dugun adibidean. Azalpenetan erabiltzen diren terminoen erreferentzia gurutzatuak egiteak liburua loturarik gabeko bihurtzen du, hau da, ez dago beste erreferentzia libururik kontsultatu beharrik. Azpimarratu nahi dudana beste gauza bat da sarrera gehienetan aholku edo iradokizun batzuk eskaintzen direla beste irakurgai batzuk egiteko. Esan bezala, sarre- rek psikolinguistikako alderdi nagusien aukera zabal bat besarkatzen dute. Liburuaren bukaeran aurkibide oso eta zehatz bat ematen zaio irakurleari, oso baliagarria dena batez ere bilatzen den kontzeptuari sarrerarik eskaini ez zaio- nean.

Pello Huizi

8. Michael Tomasello, *Constructing a Language: A Usage-Based Theory of Language Acquisition*. Cambridge, MA: Harvard University Press, 2003, 388 or.

Tomasello goren mailako zientzialaria da garapenaren arloan eta hor bere arreta batez ere gai hauei eskaini die: hizkuntzaren jabeakuntza haurraren eta gizarte kognizioa eta gizarte ikaskuntza haurraren eta primateengan. Liburu honetan Tomasellok, aurrena, laburki baina zehazki bere teoriaren puntu nagusiak aurkezten ditu, haurra hizkuntzaren jabe nola egiten den azaldu nahian berak moldatua duen teoriaren puntu nagusiak alegia. Gero, hurrengo kapitulu- etan, sakon aztertzen ditu hizkuntzaren jabeakuntzaren arlo gehienak, hala nola hitzak ikastea, sintaxia, morfologia, hizketa eta kontaketa, eta diskurtso lu- zea. Autorearen arabera, trebetasun so- zial-kognitiboak eta besteen asmo eta buru-egoerak irakurri eta ulertzeko gri- nak errazten dute hizkuntza ikasteko bi- dea. Haurra hizkuntza ikastera batez ere bera inguratzen duen giza munduari erantzun nahiak eramaten duelako ideia Chomskyren pentsaeraren aurkakoa da

erabat. Horregatik, liburuan zehar modu sistematikoan gezurtatzen du Tomase- llok Chomskyren teoria. Chomskyren hizkuntzalaritzaren printzipio nagusietako bat da hizkuntzaz jabetzeko haurra- ren gaitasunak sortzetikoa izan behar duela; hau da, haurrak «gramatika uni- bertsal» batekin jaio behar duela. Chomskyren arabera, haurrak jasotzen duen input linguistikoa endekatua da, degeneratua, eta haurrak ezin izango luke hizkuntza bezalako sistema komple- xu bat eskuratu horren denbora gutxian eta hain kalitate txarreko estimulan oinarrituz, sortzetik izango ez balu input linguistikoa deskodetu eta antolatzeko gaitasun berezi bat. Bestelakoa da To- masellok *Constructing a language* libu- ruan aurkezten duen teoria haurraren hizkuntzaz jabetzeko moduari dagokio- nez: hizkuntzaren garapena ez da gramatika unibertsal baten ondorio. Ai- tzitik, hizkuntza-unibertsal batzuk ba- daude, izenak eta aditzak adibidez erre-

ferentziaren eta predikazioaren adierazpide gisa, giza kognizioaren unibertsal batzuen ondorio dira. Tomasellok giza kognizioaren unibertsal hauek aipatzen ditu: komunikazio beharra eta prozesatze esan-entzuzkoa. Autorearen iritziz, hizkuntzaren garapen ontogenetikoa gerta dadin bi trebetasun kognitibo multzo dira funtsezko, biak egokitze biologiko/filogenetikoen ondorio direnak: asmoak irakurtzeko trebetasunak, batetik, eta ereduak aurkitzeko trebetasunak, bestetik. Asmoak irakurtzeko trebetasunei dagokienez, honako hauek aurkitzen ditu Tomasellok oraindik hitz egiten ez duen haurraren: beste pertsona batzuekin batera arreta kanpoko gertaka-

rietan jartzeko gaitasuna, beste pertsona batzuen komunikazio asmoak ulertzekoa eta pertsona helduen komunikazio asmoak imitatzekoa. Ereduak aurkitzeko trebetasunen artean, berriz, bi hauek nabarmentzen ditu dagoeneko zazpi hila-bete besterik ez dituen haurraren: kontzeptuak eta pertzeptuak analizatzeko gaitasuna eta antzeko itemak dauzkaten kategoria konkretu zein abstraktuak sortzeko gaitasuna. Bukatzeko, bidezko da azpimarratzea Tomasellok egiten duen ahalegina oinarririk gabeko ideiak saihesteko eta bere teoria erreferentzia enpirikoen bidez defendatzeko.

Pello Huizi

9. Lyle Jenkins, *Biolinguistics: Exploring the Biology of Language*. Cambridge, UK: Cambridge University Press, 2000, xiii + 264 or.

Autoreak uste duenez (ik. liburuaren sarrerako lehen oin-oharra), 'biolinguistika' hitza 1950ean erabili zen aurreneko aldiz Clarence L. Meader eta John H. Muyskens *Handbook of Biolinguistics* eskuiburuan. Psikolinguistika «hizkuntzaren psikologia alderdien azterketa» (*Euskal Hiztegia*) dela esaten bada, biolinguistika hizkuntzaren biologia alderdien azterketa dela esan dezakegu. Jenkinsen liburuaren azpituaren arabera, biolinguistikak hizkuntzaren biologia du aztergi. Autorea hizkuntzaren estudioari biologiaren aldetik heltzearen alde ageri da eta badirudi liburu hau idaztean hau izan dela haren helburu nagusia: erakustea oker daudela diotenak Chomskyk ez duela begi onez ikusi izan hizkuntzaren oinarri biologikoaren azterketa. Liburu bost kapitulu eta sarrera batek osatzen dute. Lehen kapitulu ari da hizkuntzara biologiaren bidetik hurbiltzeak jartzen dituen oinarriko arazoez, hala nola: zein den biolinguistikari dagokion arloa,

zein den metodologia egokia biolinguistikako gaiak ikertzeko eta zein den linguistikari dagokion formalizazio mota. Bigarren kapitulu hasten da gogoratuz (sarreraren hasieratik ezagutzen baititu irakurleak) biolinguistikari jartzen zaizkion funtsezko bost galderak: 1. Zer da hizkuntza jakitea edo ezagutzea? 2. Nola eskuratzen da jakite hori? 3. Nola erabiltzen da jakite hori? 4. Garuneko zein mekanismo dagozkio? 5. Jakite edo ezagutza horrek nolako bilakaera du (espezian)? Galdera horiek laburki deskribatu ondoren, modularitatearen auziari heltzen dio. Jenkinsen arabera, lehenbiziko galderari erantzungo bazaio beharrezkoa da onartzea badela mintzaira-ahalmen bat eta modularra dela gogamena. Hirugarren kapituluak hizkuntzaz jabetza du mintzagai. Autoreak, aurrena, printzipio eta parametroen eredu eta estimuluaren urritasunaren argudioa aztertzen ditu eta, ondoren, kapituluaren gainerako gutzia nitibisten eta konexio-

nisten arteko eztabaidari eskaintzen dio. Laugarren kapitulua hizkuntzaren mekanismo neural eta genetikoez ari da. Jenkinen ustea da ezen Mendelen genetika legeek geneekin zerikusia duten bezalaxe, Gramatika Unibertsalaren printzipioek ere zerikusia dutela garunarekin. Azkeneko kapitulua, luzeena, hizkuntzaren eboluzioari eskainia dago, Jenkinsek hizkuntzaren eboluzioaren ikuspegi minimalista-internalista deitzen duenari zehazkiago. Gogor hartzen ditu autoreak ultra-darwinistak —eta ultraselektionistak— deitzen dituenak, Dennett, Pinker eta Bloom; hauen dualismo metodologi-

koa eta Chomskyren ideiak desitxuratzeari salatzen ditu. Giza hizkuntzaren eta primatzen komunikazio sistemen arteko erkatetaren gaineko eztabaidak ematen dio amaiera kapitulari. Hori eta gehiago aurki daiteke liburu honetan. Chomsky saiatzen da sarritan paralelismoak ezartzen bere ideien eta filosofiarren historiako ideia batzuen artean; Jenkinsek hemen erakutsi nahi izan du badaudela paralelismoak Chomskyren ideien eta zientzia fisikoen artean.

Pello Huizi

Ezagutza eta Antolakuntzaren Gizarte eta Ekonomia Estudioak

10. Olga Gómez & Javier Zarrabeitia (Koord.), *Conocimientos clave para los gestores de tecnología e innovación*. Zamudio: Cluster del Conocimiento, 2005, 176 or. (DZ)

1997. urtearen bukaeran, Ezagutzaren Cluster elkarte, TECNALIA eta zentro teknologiko desberdin batzuek, *Teknologiaren eta berriztapenaren kudeaketa* programari hasiera eman zioten. Honen barruan, esperimenezko ikastaro bat sortzearen beharra ikusi zuten eta, ondorioz, TECNALIAK 1999. urtean, «Curso experto en Gestión de la Tecnología y la Innovación» martxan jarri zuen. Ikastaro honen nondik-norako guztiak jasotzen dira oso erraz irakur daitekeen liburu honetan. Bi atal daude: 1) «Aproximación al perfil del gestor de la tecnología y la innovación, y análisis de la oferta formativa». Bertan ikastaroa egiteko arrazoi eta behar guztiak aztertzen dira, gero liburu biko bigarren zatian hasiera dotorea emateko. 2) «Una propuesta innovadora para la formación de futuros gestores de la tecnología y la innovación». Hauxe da atalik garrantzitsuena. 1999. urtetik 2003. urtera arte praktikan jarri izandako

ikastaroaren programa, edukiak eta moduluak azaltzen ditu. Lau modulu nagusi daude, lau kapituluaren izenburuak ematen dituztenak. *Berriztapenaren sistema eta prozesuaren* atalean, bi egile desberdinen eskutik, Euskal Autonomi Erkidegoan berriztapen arloko inbertsioan eman den gehikuntza aztertzen da. Produkzio egoekitua, lan teknika, metodoen hobekuntza eta pertsonalaren zuzendaritza estrategian nola sartu azaltzen dituzten hiru artikulua desberdinek, *Enpresa kudeaketaren berriztapena* izeneko kapitulua osatzen dute. Hirugarren atalean, *Teknologia eta berriztapenaren kudeaketa* izenekoan, zortzi egileren ekarpenak aurki ditzakegu. Guztiak, teknologia eta berriztapen estrategietan oinarritzen dira (horietan, produktu berrien garapena azpimarratuz). Azkenik, berriztapen erakundearen eta eraldatzaile lidergoaren arteko erlazioa aztertzen duten sei artikulua daude, laugarren kapitulari bukaera ematen. Atal

honetan, berriztapenaren kasu praktiko bezala Jazz-Zubiaurre S.A.-ren esperientzia aurkezten dute. Liburuaren azken orrietan, ikastaroaren barne ebaluazioaren bidez jaso dituzten balorazio guztiak aipatzen dituzte. Liburu honen bidez,

nire ustez, TECNALIAk praktikan jarri zuen ikastaroaren apunteak edukitzeko aukera egokia dago.

Leire Alviz

11. Blanca Olías de Lima (koord.), *La nueva gestión pública*. Madril: Prentice Hall, 2001, 401 or.

Complutense unibertsitateko Olias irakasleak zuzendu duen liburu hau interesgarria da azken urteotan sektore publikoan gertatzen ari diren aldaketak ulertzeko. Sektore publikoaren garrantziaz jabetzeko, nahiko da datu hau aipatzea: gastu publikoa BPGaren %50 inguruan dago Europako estatu askotan (81. or.). Estatuaren murrizpena gertatu da, neurri batean. Baina hori baino garrantzitsuagoa da Estatuan eta oro har sektore publikoan gertatzen ari den aldaketa.

Hasierako bi kapituluetan «kudeaketa publiko berria» eta «gobernagarritasuna» (*governance*) kontzeptuen aurkezpena egiten da: sorrera eta bilakaera, proposamenak, eta eztabaidak. Ondoren, hamar kapitulutan, sistema publikoaren antolakuntza paradigma berriaren eragina aztertzen da, arlo eta dimensio desberdinei helduz: pribatizazioa, giza baliabideak, lidergoa, kudeaketa eta aurrekontua, errendimenduaren ebaluaketa, kultura eta etika, informazioa eta komunikazioa, bezeroaren ideia, gobernuarteko harremanak (kapitulu hau UPV-EHUKo irakasle J. Mondragonek idatzi du), Europa eta berrikuntza.

Oro har, testu liburu interesgarria eta egokia da, egile askoren ekarpenak biltzen dituena baina aldi berean batasuna mantentzen duena. Gure aldetik, kapituluetan zehar, han-hemen, azpian dauden kuestio hauxe nabarmendu nahi

genuke: antolakuntza paradigma berria ez da neutrala, hau da, kudeaketa sistema hori definitzean eta ezartzean aukera politikoak egin behar dira. Paradigma berriaren sorrera «eskuin berria» deitu zen mugimenduarekin gertatu zen (adibidez Erresuma Batuan). Dena den, gaur egun jende askok (eskuin zein ezkerrekoak) onartzen du erakunde publikoetan eraginkortasuna bilatu behar dela, kalitatea definitu eta hobetu behar dela eta hierarkia murriztu behar dela.

Paradigma berriak bultzatutako ideiak eta instrumentuak hedatuz joan dira erakunde publikoetan: gerentzia funtzioa; formulazioaren eta inplementazioaren arteko bereizketa (azken hau, zenbait kasutan, agente pribatuen esku geratu delarik); malgutasuna aurrekontua gastatzean (kontrola *a posteriori* egiten delarik); errendimenduaren arabera ko ordainketa sistemak; informazio sistemak (kontrola areagotzen dutenak eta aldi berean autonomia bultzatzeko erabil daitezkeenak), etab.

Bestalde, gobernagarritasun kontzeptua oso hedaturik dago. Dirigismoa baztertu behar da eta, neurri batean, Estatua «animatzaile» edo «katalizatzaile» bihurtzen da, aktore publikoen eta pribatuen arteko harremanetan, maila nahiz eragile askotako gobernagarritasun sistema edo sare baten barruan.

Kontzeptu berriak zabaldu dira, baina sakoneko kuestioek hor diraute: de-

mokrazia, eskubideak eta hiritartasuna, interes kolektiboa eta erantzukizuna, elkartasuna. Eta hor tentsio handiak daude «Estatu minimoa» defendatzen duten neoliberalen eta Estatuaren birmoldake-

tak eta demokraziaren indartzeak batera joan behar dutela defendatzen dutenen artean.

Mikel Olazaran

Diskurtsoaren analisisa eta Erretorika

12. Alfredo Adolfo Camus, *Curso Elemental de Retórica y Poética*. Madril: Rivadeneyra, 1847. Reed. Facsímil: Ed. Maxtor, Valladolid, 2001, 301 or.

Madrilgo Unibertsitatean hemeretzigarren mendearen erdian 'Principios de Retórica y Poética' izeneko katedra bat lortu eta, ohiturari segituz, ikasleentzat testu berri bat idatzi beharrean, Camusek bide egokia hartu zuen: batetik, Erretorikaz ingelesez idatzitako liburu on baten gaztelaniako itzulpena laburbildu eta, bestetik, Poetikaz mende horren hasieran irakasle ospetsu batek gaztelaniaz egindakoarekin beste hainbeste egin. Francisco Sánchez irakaslearen 'Principios de Poética'ren hamalau kapitulu ditugu hor, baita lehen eranskinean ere liburu horretako beste bi kapitulu berezi edertasunaz eta gustuaz. Bigarren eranskinean Jovellanosen 'Retórica y Poética'ren zati batzuk azaltzen dira deklamazioaz (*diskurtsoaren analisi* terminoaren erabilpena ikus daiteke bertan). Interesgarriagoak dira eranskinen ondoren Camusen eskutik datozen bi Arte tradizionalak: 'Principios de Arte Métrica Castellana' eta 'Principios de Arte Métrica Latina'. Baina, liburuaren berrargitalpen honen baliorik handiena Hugh Blairren (1718-1800) *Lectures on Rhetoric and Belles Lettres* (1783) liburuaren laburbilduma da. (José Luis Munnarizek lau aletan itzulita eman zen argitara gaztelaniaz Madrilen, 1798tik 1801era bitartean.) Blair eskoziarrak eli-

za presbiteriarrari sermolari eta gidari gisa urte asko eskaini ondoren, ia berrogei urte zituela Edinburgoko Unibertsitatean irakasle moduan sartzeko aukera izan zuen (Argien Garaian), berehala erretorikako katedra lortuz (Eskozian izan zen lehena). Erretiroa hartutako urtean eman zituen argitara bere lezioak, erretorika klasikoa (Isokrates, Demostenes, Zizeron, Kintiliano) garai hartako erretorika berriarekin lotzeko asmoarekin, testu idatzien azterketa erretorikoari aparteko garrantzia emanez. Diskurtso mota zabaletara hedatu zuen erretorikaren lana, sen onaren gainean eraikitako eskoziar errealismoari zegokion eran, hala nola, historia testuetara, filosofia-koetara, hezkuntzakoetara... eta, noski, literaturako genero guztietara. Zabal-kunde handia izan zuen Blairren liburuak, bai unibertsitateetan bai bigarren mailako irakaskuntza zentroetan eta seinalatzekoa da hogeai urte ez zirela pasa gaztelaniako itzulpena azaldu zenerako. (Frantsesezkoa geroago egin zen.) Camusen liburuaren berrargitalpen honek aukera ona ematen digu Blairrek Edinburgon irakatsitako berrogeita zazpi ikasgaien berri izateko.

Jesus M. Larrazabal

Giza eta Gizarte Zientzien Filosofia eta Historia

13. Matthew Clayton & Andrew Williams (argk.), *Social Justice*. Oxford: Blackwell, 2004, ix+325 or. (DZ)

Gizarte justiziazko liburu hau oso ongi hasten da: argitalpenak emango dituen *royalti* guztiak mundu zabaleko haur pobreen egoeraz eta, bereziki, heziketaz aspaldidanik arduratzen den OXFAM organizazioari emango zaizkio. Gizarte justiziarri buruzko hamahiru ekarpen biltzen dira liburuaren hiru zatietan. Filosofiako eta zientzia juridiko eta politikoa ikasleek probetxu ona atera diezaiokete liburu honi. Egia da: liburuan tradizio filosofiko anglo-amerikarra bakarrik aurkezten da eta hau muga handia da. Lehen zatiko bi testuak ere ez daude bereziki motibatuak. Zergatik hasi John Lockeren Gobernuari buruzko bigarren tratatutik (bosgarren kapitulua: Jabegoaz, 25-51 atalak) eta gero segi lehen tratatuaren laugarren kapituluko 42. atal laburrekin? Zergatik segi, ondotik, Humeren bigarren Ikerketarekin, justiziaren arazoaren muina jabego pribatuan dagoela seinalatzeko? Liburuaren sarreran saiatzen dira bi biltzaileak aukera hori justifikatzen eta seguruenik daukaten justifikazio bakarra enpirismoaren bidetik heldu den xx. mendeko filosofia moral eta politiko analitiko da. Baina gauzak honela izanda ere, ez dakigu zergatik ez den xix. mendeko utilitarista klasikoen testu bat bera ere sartu. Liburuaren bigarren zatian sei testu azaltzen dira. Lehena obligatua da: John Rawlsten *Justiziaren Teoriatik* hartua. Jatorrizko posizioan oinarrituta, Rawlsek utilitaristei eta intuizionistei (John Stuart Milli eta Henry Sidgwicki alde batetik eta, bestetik, G.E. Mooreri) egindako kritiken gainean, bi printzipio nagusi jartzen ditu: 1. oinarritzko askatasunaren printzipioa eta ho-

nek bideratzen ditu askatasun zibil zehatzak (kontzientzia askatasuna, adierazpen askatasuna, elkartze askatasuna, lanbiderako askatasuna eta partehartze politiko demokratikorako eskubideak; 2. berdintasun demokratikoaren printzipioa, bi azpiprintzipio hauetan mamitua: a. aukeren aurreko berdintasun garbiaren printzipioa; b. ezberdintasunaren printzipioa, hau da, ezberdintasunak ahal den neurrian premiarik gehiena dutenen alde murriztu behar direla dioena. Hurrengo bi testuak Rawlsekiko kritikak dira. Batetik, Robert Nozicken testu bat dator, *Anarkia, Estatua, eta Utopia* liburutik hartua. Bestetik, Ronald Dworkinek *Berdintasunaz* idatzitako artikulu baten zati bat dator. Bi hauetako lehenak, justizia historizatzearekin batera, oinari ahuleko libertarismoari irekitzen dio atea. Bigarrenak askatasunaren defentsa erradikala egiten du, berdintasun posible askatasun posiblearekin identifikatuz, Rawlsten eta Nozicken posizioen sintesiaren bila ibiliko balitz bezala. Bigarren zatiko beste hiru kapituluak aurrekoen eremuan kokatuak daude. G.A. Cohenek zalantzan jartzen du Rawlsek eta Nozickek defenditutakoa, hau da, ongizatearen pertsonen arteko konparaketek ez daukatela leku legitimorik gizarte justiziaren oinarriak mugatzerakoan. Hurrengo testuan Elizabeth Andersonek kritika zorrotzak egiten dizkie zorian oinarritutako berdintasunzaleei. Berdintasunaren aldeko mugimendu bizenak go-goan hartuz, argi uzten du berdintasun erradikalaren aldekoak ez daudela gizartean gutxien dutenentzat konpentsazioak zabaltzearen alde, besterik gabe. Alderantziz, zapalketa ezabatu eta gizarte

harremanetan berdintasuna sortzearen aldekoa da bera. Zati honetako azken testua David Millerrena da, gizarte justizia merezimendu nozioaren gainean eraikiz. Kritika asko jaso ditu, formalki zirkularitatea sortzen duelako, merezimendua ezberdintasunaren gainean egon daitekeelako eta estandar praktikokoak definitzeko gauza ez delako. Liburuaren hirugarren zatiak interes gutxiago du. Familiaz eta Generoaz idazten du Susan Moller Okinek, animaliei kultura ezberdinetan ematen zaien tratuaz ari da Paula Casal, merkatuaz eta justizia banatzaileaz G.A. Cohen, utopismotik aparte-gizarte justizia global erreformazaleaz idazten du Thomas Pogge eta, bukatzeko, Derek Parfiten testu interesgarri bat

eskaintzen du belaunaldien arteko konpromiso moralaz eta erabakien izate zuzenaz.

Liburuaren bigarren zatia da argiena eta interesgarriena, gizarte justiziaren oinarriak eztabaidan jartzen direnez. Lehen zatian gizarte justiziaz arduratutako filosofo batzuk nabarmen falta dira: Ilustratu frantsesak, Rousseau, Kant, Marx... Hirugarren zatia desordenatu samarra da eta ez dakigu zein irizpide erabili diren sartu diren testuak sartzeko. Liburua irakurrita ematen du XX. mendean Europan ez dela, posizio filosofiko ezberdinetan, gogoetarik egin eta idatzi gizarte justiziaz. Penagarria.

Jesus M. Larrazabal

14. Sergio Sevilla, *Crítica, Historia y Política*. Madril: Cátedra, 2000, 295 or.

Gaur egungo filosofia kritikoak (eta noiz ez da kritiko izan filosofia?) ardatz-ardatzean dituen hiru gai aztertzen dira liburu honetan. Hasteko, zer den gaur pentsamendu kritikoak, kritikoak gizartearen gertatzen denarekiko eta, jakina, autokritikoak ere bai. Modernitateak bultzatu zuen pentsamendu kritikoak, baina gaur, orduan ez zituen ildo eta estrategiak erabiltzen dira, kritikarako bidea zaildu egin denean, obediencia ongi ordainduen joko maltzurra medio. Lan honetarako Sevillak Frankfurtoko eskolaren hastapenean egon ziren Horkheimerren eta, batez ere, Adornoren testuetara jotzen du eta hauen bidez aurrera Habermas edo Negri bezalako filosofoetara, eta atzera Marx, Hegel, Kant edo Spinoza bezalakoetara. Liburuaren bigarren gaia historiaren filosofiari lotua da. Ilustrazioak zuen asmoa arrazoa historiaren oinarri bihurtzeko, hau da, historiaren ikuspegi arrazionalista eta progresista

(zientifikoa) garatzeko, mila puskatan puskatua gertatu da. Honen lekuko liburuaren egileak aztertzen dituen *bira* ezberdinak: Whiteren bira erretorikoa, Ricourren bira hermeneutiko-praktikoa, Berlinen bira neoliberal eta balioetan pluraltasunaren aldekoa eta Bourdieuren bira praxikoa. Hirugarren gaia politika da, politika gaur ulertzeko modua, politika filosofikoki gaur dena, arrazoa, ekintza eta askatasuna lotu gabe doazenean ekintza politikoari geratzen zaion lekua, erredukzio ideologiko etengabeen bitartez, politikaren espazioa administrazioaren espazioan (juridiko nahiz ekonomikoan) eta organizazioen kudeaketa malgu bezain asistematikoa itoarazi nahi den momentu honetan. Liburuan, oro har, Adornori buruzko orri ugariak dira interesgarrienak.

Jesus M. Larrazabal

15. Jonathan Dancy, *Practical Reality*. Oxford: Oxford University Press, 2000, xii+187 or.

Filosofu hau epistemologiaren eta filosofia moralaren esparruetan egin da ezaguna. Azken urteotan gehienbat bigarrenari heldu dio, 1993an *Moral Reasons* liburua argitaratu eman zuenetik. Oraingon bi esparru horien arteko mugan eta oinarrian dagoen ekintzaren filosofiari heldu dio, hain zuzen bi gai nagusi hauek aztertzeko: alde batetik, ekintzarako dauden arrazoi onak eta, bestetik, zer den arrazoiren batek eraginda zer bait egitea. Lehenbiziko gaiak, ekintzarako arrazoiaren teoriak (ez balioen teoriak) arduratzen denez, arrazoi praktikoen izateaz dihardu. Bigarrenak, lehenak emandako emaitzetatik abiatuz, egiteko dagoen arrazoi onaren izatea aztertzen du, motibazioen gainetik arrazoi normatiboak jarritz. Dancy errealismo moral sendoaren defenditzailea da (etikaren objektibotasuna zentzu indartsuan defenditzen duena) eta ez da inoiz konformatu McDowell-en errealismo moral ahularekin, kontzeptu moralen subjektibotasuna propietate moral antropozentrikoen lotzen duenarekin alegia. Dancyren hitzetan da: goizean goiz erraz hasten dira hitz egiten errealista moral ahulak, baina gaua iritsi orduko, erremediorik gabe, errealista moral sendo bihurtzen dira, ohera joan eta lasai lo egin ahal izateko. Liburuaren lehen kapituluak ekintzaren filosofiarako oinarri-oinarrikoak dira. Normalean egite batek ekintzan sartzen denean arrazoiak ditu horretarako. Egin zergatik egiten du bategi eta zergatik egiten du egiten duena

eta ez besterik? Dancy liburuaren lehenbiziko kapituluaren arrazoi motibatiboleak arrazoi normatiboetatik bereizten ditu, arazoa ekintzaren justifikazioan baino lehenago ekintzaren esplikazioan datzala esanez. Bigarren kapituluak pieza analitiko fina da desioan oinarritutako arrazoiak defenditzen dituztenen aurka. Hirugarren kapituluaren helburua aurrekoaren antzekoa da, baina oraingon beste hau defenditzen da, usteak ez direla gauza arrazoi normatiboak oinarritzeko. Honek etena ekartzen du arrazionalitate teorikoaren eta praktikokoaren artean eta Dancy ez dio arazo gogor honi behar hainbesteko tratamendurik ematen. Psikologismoa arbuatuz kognitibismo gardenerako bidean, egoera motibatiboleen teoria kritikatzeko du laugarren kapituluaren. Bosgarren kapituluak trantsiziozkoa da eta seigarrenean Dancyren ikuspegi propioak azaltzen dira 'A-k egiteko, p zuen arrazoi' onesten duela eta 'A-k egin zuen, p uste zuelako' gaitzesten duela argi utziz. Internalismo forma guztiak erasotzeko idatzi ditu liburuaren egileak azken bi kapituluak. Amaieran irakurleak jaso dezakeen inpresioa hauxe da: psikologista, mentalista eta internalista guztien aurka Dancyk agertu dituen arma analitikoaren laurdena bere ikuspuntu eta aukera propioak azaltzen erabili izan balitu, liburuaren bukaeran argiago izango genuke zeren alde dagoen positiboki bera.

Jesus M. Larrazabal

16. Roslyn M. Frank, Miguel A. Barcenilla & Anne-Marie Legarde, *Emakumea Euskal Herrian (hacia un feminismo propio)*. Donostia: Basandere, 2001, 300 or.

Euskal Herrian gizabanakoaren gizarte integrazioa baserriaren bitartez egin zen. Seme edo alaba zaharrenak baserria lantzen zuen eta bertan agintzen zuen, emakumea izanez gero seme-alabek amaren abizena mantentzen zuten. Banaketarik ezaren arrazoia ohitura aristokratiko batean datza, lur ondasuna ez erdibitzean, lur eremua osorik mantentzen da hurrengoek landu ahal izateko. Ohitura hori Gaztelako monarkiak esaten zuenaren kontra zihoan, hark zatiketa eta berdintasun kuantitatiboa exijitzen baitzituen; Frantzia, aldiz, gizonek soilik zuten eskubidea.

Hamasei eta hamazazpigarren mendeetan errepresio gogorra jasan zuten emakume

euskaldunek —garai hartakoak dira sorginen jazarpena, 1609. urtean Iparraldean, eta 1610. urtean Hegoaldean— bi koroa borboien aldetik. Legez kontrako ezkontzek eta serorek zuten garrantzia zela eta, arriskuan jartzen zuten estatuaren patriarkalismoa eta erlijio misoginoaren boterea.

Hemeretzigarren mendean erresistentziaren aurkako ekintzek moraltasun ofiziala finkatzea lortu zuten, baina justu memento hartan europar eliteetako emakumeek burujabetzarako bidea hasi zuten eta 1975. urtean lehen mugimendu feminista sortu zen Euskal Herrian.

Jule Goikoetxea

17. Max Weber, *Conceptos sociológicos fundamentales* (Joaquín Abellánen edizioa). Madril: Alianza Editorial, 2006, 200 or.

Argitaratu berri den liburu honetan, soziologiaren aitzindari izan zen Max Weberren (1864-1920) *Ekonomia eta gizartea* lan mardularen lehenengo atalak jasotzen dira, Complutense unibertsitateko irakasle den Joaquín Abellánek prestatu eta itzulitakoak. «Sakelako liburu» formatoa duen lan honen emaitza ona da oso, zalantzarik gabe. Aipagarria, bereziki, Abellánen aitzin solasa, 61 orrikoa. Bertan Weberren lanaren kokapen historikoa egiten da, eta ondoren egile alemaniarraren kontzeptu nagusiak aurkeztu (besteak beste, ekintza soziala, ordena soziala, «eredu-kontzeptuak», esanahiaren mailako korrespondentzia eta korrespondentzia kausala). Bukaeran hiztegi labur bat eskaintzen da, Weberren kontzeptu nagusien definizioekin.

Sarrerarekin batera hartura, hiztegitxo hori lagungarri gertatzen da sintesi moduan.

Liburuaren edukin nagusia Weberren *Ekonomia eta gizartea* liburuaren lehenengo hamazazpi atalen itzulpen berria da, hau da, «Oinarrizko kontzeptu soziologikoen» itzulpen berria, 116 orritan, Abellánek egindakoa. Atal horietan, izenburuak dioen bezalaxe, soziologiaren funtsezko kontzeptuen definizioa egiten da, pausuz pausu, ordena sozialaren erakina altxatuz: gizakia eta giza ekintza, gizarte ekintza (eta ekintza mota desberdinak, tartean ekintza arrazionala dagoelarik), ordena soziala eta legitimitatea, lehia eta burruka, «komunitatea» eta «gizartea», erakundea (organizazioa) eta instituzioa, eta Estatu eta boterea.

Weberren lanak eragin handia izan du soziologiaren bilakaeran. Besteak beste, bilakaera lerro hauek aipa daitezke: interakzionismoa, fenomenologia,

ekintza arrazionalaren teoria eta teoria kritikoa.

Mikel Olazaran

18. Jacqueline de Romilhy & Alexandre Grandazzi, *Une certaine idée de la Grèce*. Paris: Fallois, 2003, 351 or.

Elkarrizketa liburu bat da. Grandazzi Sorbonneko latinistak Jacqueline de Romilhy helenista ospetsuari galdera zorrotzak egiten dizkio zazpi kapitulutan zehar eta erantzun zehatz bezain trinkoak ematen dizkio ia osorik itsutua dagoen de Romilhyk. Antzinako Greziako hizkuntza eta kulturaren hogeigarren mendeak eman duen aditurik handienetakoa da Collège de France-ko eta Académie Française-ko partaide den irakasle eta ikerlari ospetsu hori. Bizitza osoa Grezia klasikoa aztertzen eman du: historia, mitika, hizkuntza, kultura, erretorika, politika, literatura, filosofia... Liburuaren lehenbiziko kapituluan de Romilhyk ongi adierazten du nola bihurtu zen helenista, ikerkuntzan nahiz irakaskuntzan, batez ere etxeko eraginez eta unibertsitatean egindako ikasketa onen ondorioz. Bigarrenean, Tuzidides historialari buruz hitz egiten du. Inork baino gehiago daki pertsonaia horretaz eta inork baino hobeto ezagutzen du xehetasun guztietan haren *Peloponesoko gerraren historia*. Kapitulu hau Tuzididesen aldeko laudorio bat da, hark historian zehar izan duen garrantzia azpimarratuz. Hirugarren eta laugarren kapituluek balio berezia dute. Argi uzten du de Romilhyk ideien historiari zergatik eman dion hainbeste denbora bizitza osoan. Demokrazia aztertzen du lehenik eta honen barruan le-

gea, askatasuna, ordena, hizketa librea, berdintasuna... eta baita *polisaren* barruko harremanetako 'goxotasuna' ere. Gero, tragediaren azterketari heltzen dio, Eskiloren, Sofoklesen eta Euripidesen lanari. Hor ere, errepresentazioaren azterketaz gain, ideien sorrera eta eboluzioa aztertzen ditu, tragediaren alderdi erlijioso eta gizatiarrak kontsideratuz. Bosgarren kapitulua Homerori buruzkoa da, Homeroren *Iliada* eta *Odisea* etengabe aztertearen garrantzia seinalatuz. Buruz jakin behar omen zituzten bi obra horietako pasarte nagusiak Greziako hiritar kultoek. *Iliada* du gustukoena de Romilhyk, bertan heroiak gizakiaren forma besterik ez duelako. Seigarren kapituluan bere lan esparrutik kanpoko literatura argitalpenak azaltzen ditu, bereziki saiakeraren mailan egindakoa. Liburuaren azken kapitulua humanismo klasikoren aldeko oihu bat da, greziera eta latinaren ikasketen aldeko oihua, ikasketa 'klasikoen' aldeko oihua. Kapitulu bakoitzaren ondoren de Romilhyk ohar batzuk egiten ditu kapituluan esandakoaz, hain zuzen gauzak zehaztuz. Liburuaren 127. orrian honako hau esaten digu: *Atenasen krisi politikoak aurrerakuntza filosofikoetan islatzen ziren*. Zein urrun gauden hemen horretatik!

Jesus M. Larrazabal

Hizkuntza, Kognizio, Informazio eta Ekintzarako Matematika

19. Denis Guedj, *Loroaren teorema*. Bilbao: EHUko Argitalpen Zerbitzua, 2005, 525 or.

Jostein Gaarder norvegiar idazlearen *Sofiaren mundua* (1991) eleberria eta filosofoaren historia zen batera; sei urte geroago, 1997an, Catherine Clément frantses idazleak *Teoren bidaia* argitaratu zuen, eleberria eta aldi berean munduko erlijio guztien historia zena. Handik urte batera, Denis Guedj matematikari eta Zientzien Historiako irakaslearen *Le théorème du perroquet* agertu zen, non kontakizun erakargarri bat eta matematikaren historia nahasten diren. Guedjen liburua euskaraz ere irakur dezakegu orain, 2005ean Euskal Herriko Unibertsitateak ZIO (Zientzia Irakurle Ororentzat) bilduman plazaratu zuen euskal itzulpenean. Bilduma horretan eskaini den hirugarren liburua da hau, Oliver Sacksen *Antropologo bat Marten* eta François Jacoben *Sagua, eulia eta gizakia* lanen ondoren. Esan beharra dago hiru liburuen itzulpenak benetan onak direla. *Loroaren teoremaren* autoreak, korapilo poliziako bihurri baten aitzakiaz, matematikaren munduan sarrarazten gaitu eta matema-

tikako printzipioak eraiki eta aurkitu zituztenekin bidaiatzera gonbidatzen gaitu; beste askoren artean, honako hauekin: Tales, Pitagoras, Euklides, Arkimedes, Torricelli, Pascal eta Euler. Intrigak ez du matematikaren irudi abstraktua bizitasunez janztea beste helbururik. Autoreak irakurtzearen atsegina eta ikastearena konbinatu nahi izan ditu. Dena dela, liburuaren interesa eta garrantzia honako honetan dago: hogeita bost mendetan barrena landuz eta aberastuz joan diren teoria matematikoak aletzen dizkigula korapilo poliziakoei buruzko galderen artean. Beste hainbat gauzaren artean, honako hauek jakinarazten ditu: matematikariak baliabide askoko jendea zirela, zifrak eta zeroa indiarrek asmatu zituztela eta ez arabiarrek. Hitz batean, autorearen artea bi mundu hauek, matematika eta literatura, elkarri hurbiltzea izan da, letretako jendeari zientzien historia eskuragarri eginez.

Pello Huizi

20. Saunders Mac Lane, *Saunders Mac Lane: a mathematical autobiography*. Wellesley, MA: A K Peters, 2005, xvi + 358 or.

Saunders Mac Lane matematikari estatubatuarren autobiografia da *Saunders Mac Lane: a mathematical autobiography* liburua. 2005eko apirilaren 14an zendu zen Mac Lane 95 urte zituelarik eta gutxigatik bada ere ez zuen bere azken urteetan idatzitako liburu hau argitaratuta ikusteko betarik izan.

358 orrialdeko liburu hau 15 atal eta 64 kapitulu laburretan antola-

tuta dago. Izenburuan antzeman daitekeen «matematikoa» da, halaber, Mac Laneren autobiografia, matematika izan baitzen neurri handi batean Mac Laneren bizitza.

Hiru zutabe nagusi ditu liburuak: Mac Laneren bizitza pertsonala eta bere familia eta lagunen gorabeherak alde batetik, bere ikerketa matematikoaren nondik norakoa bestetik, eta Mac Lanek

bere ibilbide akademikoan ezagututako erakunde eta ikerketa zentro eta unibertsitateen egoera eta eboluzioa azkenik.

Orriotan XX. mendeko matematika-ren ikuspegi zabala eta eskuetsia eskaintzen digu Mac Laneren luma zorrotzak. Kontuan izan behar dugu Mac Lanek zuzenean ezagutu zuela II. Mundu Gerra aurreko Alemaniako (eta bereziki Göttingeneko) eskola matematikoa, Hilberten itzal luzearen azpian loratutako matematika zentro berdingabea. Izan ere, Mac Lanek bertan egin baitzuen bere logika matematikoa inguruko tesia, Bernaysen gidaritzapean. Hango urteek eragin handia izango zuten Mac Lanerengan, bai lan egiteko moduan eta baita matematika ikusteko moduan ere.

Kronologikoki antolatuta dago liburua, eta aipatutako hiru zutabeak bata bestearen atzetik harilkatuz doaz kapitulu kapitulu, irakurteraztasunaren mesedetan. Kapitulu laburrek, bakoitzean oso gai konkretuak lantzea ahalbidertzen dute. Bereziki interesgarriak dira Mac Lane matematikariaren lanak eza-

gutu nahi dituenarentzat bere ikerlan garrantzitsuenak azaltzen dituzten kapituluak. Zeren bila zebiltzan eta aurkikuntzen gakoak zeintzuk diren azaltzeaz gain, gerora lan hauek izandako proiektioaz ere mintzo zaigu Mac Lane. Hor koka daitezke Samuel Eilenbergekin berrogeigarren hamarkada hasieratik izandako elkarlana deskribatzen duten kapituluak. Algebra eta Topologia uztartuz hasitako elkarlan hark, Mac Laneren kasuan behintzat, bere ekarpen nagusia izango zen Kategorien Teoriara nola gidatu zituen azaltzen da beraietan. «Abstrakzioen abstrakzio» izenez deitu zutena, hasierako urteetan komunitate matematikoan izandako harrera hotza izan bazen ere, gaur egun jadanik matematikaren adar legitimo bezala onartua da.

Argazki bilduma garrantzitsua aurki dezakegu liburuan. Baita izen indize osatu bat ere liburuaren atzealdean.

Enetz Ezenarro